HORREN ERRAZ!



EZ DUGU AULKIA BETEKO
EZ DUGU ORDAINSARIRIK
JASOKO
#20N

AURKI GAITZAZU INTERNETEN

ESCANOSENBLANCO.ORG

info@esconsenblanc.org
facebook.com/escanosenblanco
twitter.com/escanosenblanco
youtube.com/esconsenblanc

PARTEKATU EDO BERRERABIL NAZAZU. MILA ESKER.



#20N

EZ EMAN BOTO ZURIA
BOTA EZAZU AULKI ZURIAK

#YOVOTO

ZER DA AULKI ZURIAK?


Aulki Zuriak egungo alderdi politikoekin eta berauen ordezkarien lanarekin konforme ez eta, hauteskunde zerrendetan asetzen ez dien proposamenik topatzen ez duten biztanle demokratei aukerabide bat eskaintzeko nahiarekin **alderdi politikoan eratutako hiri plataforma da.**

ZER DA NAHI DUGUNA?

Aulki Zuriak egungo alderdi politikoekin islatuta sentitzen ez diren eta demokrata moduan lurraldeko **bizitza politikoan parte hartzeko aukeratik urrunduak izan nahi ez** duten horien nahiak asetzeko, hauteskundeetan aurkeztuko den aukera da. Zenbagarria izango den bozka zuria emateko aukera proposatzen du, **gainerako alderdi politikoak geure botoaz jabetu ez daitezen.**

ZER EGINGO DUGU?

Aulki Zuriak uzteko prest gaude. Lortu ahal izango genukeen edozein **aulki hutsik uzteko eta** egungo hauteskunde legeak aitortzen duen **edozein ordainsari ekonomiko jasotzeari uko** egiteko konpromisoa hartzen dugu.



BOTO ZURI HAU EZ DA
BALIAGARRIA



BOTO HAU
BALIAGARRIA
DA, BAI

#EB

ZER LORTU NAHI DUGU AULKIAK HUTSIK UTZIZ?

Bozka zuria zenbagarria izatea lortu eta praktikara eraman nahi dugu, egun indarrean dagoen hauteskunde legeari jarraiki, hauteskunde zerrendetan beren burua islaturik ikusten ez duten horiei bozka zehatza lortzeko aukera eskainiz.

Egungo alderdi politikoekin ordezkatuta sentitzen ez den gizartearen alderdi handi baten **desadostasuna agerian utzi** nahi dugu.

Bizitza politikoaren berritzea lortu nahi dugu, egungo alderdi politikoek eta ordezkariek beren egitekoa etikotasunez, zorroztasunez eta errespetuz egiteko ahalegin handiago jar dezaten eskatzen dugu, gizartearen parte hartzea gehiagotan bultzatuko duten, ez soilik lau urtean behin hauteskunde garaian, gobernu-ekimen eta legeen bidez.

NOLA FUNTZIONATZEN DU ALDERDIAK?

Aulki Zuriak parte hartu nahi duen orori irekia dagoen profesionalak ez diren boluntarioez osatutako hiri plataforma da. Jarraitzaile moduan, hautagai zerrendan parte har dezakezu edota zure inguru hurbilean proposamen hauen zabalpena eginez (internet, sare sozialak, etab..).

NOIZ ARTE?

Aulki Zuriak hauteskunde **legearen moldaketa egiten denean eta bozka zuria zenbagarria izatea lortzen denean amaituko** den proiektua da, aurkeztuko diren formazioekin bere burua islaturik ikusten ez duten kasu horietan, ordezkari horiek beteko lituzketen **aulkiak hutsik, beste hautagai bat izango balitz bezala, gelditzeko eskubidea lortzen denean** amaituko dena.